# ASKO DUGU JOKOAN

Sentsibilizazioak, prestakuntzak, prebentzioak, detekzioak eta jokoarekin lotutako arrisku-egoeren tratamenduak gizarte hobe bateranzko aurrerapausoak ematen laguntzen digu.



## ZER EGIN DEZAKEGU?

**Hainbat proposamen prebentzioa hobetzeko, sarbidea errazten ez duten inguruneak sortzeko eta gizarte gisa ausazko jokoek eragin ditzaketen arazoak minimizatzeko.**

### AUSAZKO JOKOETAN ARITZEKO LOKALAK

Joko- ostalaritza-lokaletan ikuskapenak eta kontrola areagotzea. Lokalen lizentziak behin betikoak izan ez daitezen edo, arau-hausteak pilatuz gero, deuseztatu ahal izan daitezen lortzea.

Lokaletan edari alkoholikoak zerbitza daitezen debekatzea.

Joko lokaletan dauden karteletan osasun-sare publikoa agertzea ludopatiaren atentzioaren errekurtso gisa.

### OSTALARITZA

Sentsibilizazio-ekintzak sektorea gehiago inplika dadin lortzeko.

Ostalaritza-establezimenduetan makina txanponjaleak eta kirol-apustuak egiteko makinak debekatzea.

### IKASTETXEAK

Ikastetxeetan prebentzio-programak egitea.

### PUBLIZITATEA

Ausazko jokoen publizitatearen arautzean aurrera egiten jarraitzea eta mugak handitzea.

Jokoaren publizitatea eta "Hemen 1 milioi euro balioko sariak banatu ziren" gisako apeu publizitarioak debekatzea.

Loteriei eta ausazko beste joko batzuei buruzko iragarkiak deuseztatzea.

### KIROLA

Pilota-apustuak arautzea.

Futboleko eta beste kirol batzuetako klubetan kirol-apustuen babesletzak mugatzea.

### ADINGABEEN SARBIDEA ETA AUTODEBEKUA

Adingabeen eta autodebekua egin duten pertsonen sarbidea eraginkortasunez kontrolatzea.

Ausazko joko guztietan identifikazioa eskatzea (loteriaren eta ONCE kupoiaren erosketa barne).

Kredituetarako autodebekuen erregistroa sortzea.

## ZURE TXANDA DA... ZER USTE DUZU ZUK?

## AUSAZKO JOKOETAKO DIRUA

**AUSAZKO JOKOEN DIRU-SARRERA GORDINAK ESPAINIAN*** (jokatutako kopuruen eta sarien arteko aldea)

**10.255** MILIOI EURO

* 2023 txostena. Jokoaren Enpresa Kontseilua.

**30.119** MILIOI EURO jokatuta Espainian (2022)

* 2023 txostena. Jokoaren Enpresa Kontseilua.

## ZERTAN GASTATU NAHI DUZU ZURE DIRUA?

**625** euro/urtean 18 urtetik gorako lagun bakoitzeko

**Familiarteko oporren erdia baino gehiago**
Espainiako familien oporretarako aurreikusitako batez besteko gastua 1.174 eurokoa da.

**Hilabete bateko hipoteka baino gehiago**
Espainiako hilabeteko hipoteka-kuotaren batez bestekoa 400-500 euro ingurukoa da.

**Unibertsitateko matrikularen erdia baino gehiago**
Espainiako unibertsitate publikoetan ikasmaila bakoitzaren batez besteko prezioa 1.000 euro ingurukoa da.

**Argiaren ordainagirien bi heren**
Espainiako etxebizitzetan energian batez beste 900 euro gastatzen dira urtean.

**Bi hilabeteko erosketa-saskia**
Espainian herritar bakoitzak 300 euro inguru gastatzen ditu hilero janarian.

**17 aldiz joatea zure futbol-taldea ikustera**
Lehen Mailako sarreren batez besteko prezioa 35,12 eurokoa izan zen aurreko denboraldian.

**Kontzertu batera 15 aldiz joatea**
Espainian neurri ertaineko kontzertu baten prezioa 40 eurokoa da.

**Ia bi urtez dendaz denda ibiltzea**
Espainiako herritarrek urtean 330 euro gastatzen dituzte batez beste arropan.

**Urtebetez plataforma digital guztietan izena emanda egotea**
Plataforma guztien (oinarrizko planak) kostu osoa 500 euro ingurukoa da (Netflix, HBO Max, Prime Video, Disney Plus, Movistar Lite, Atres Player).

**DATUA**
Espainian ausazko jokoetan egiten den gastuarekin 13.385.406 lagunen osasun publikoa ordain liteke (Osasun Ministerioaren arabera, 2022an osasun publikoan biztanle bakoitzaren kostua 2.042 euro / lagun izan zen).

*"Une batetik aurrera gaixotasunak kontrolatzen ninduen. Hasieran, hobby bat zen, dibertsioa obsesio bilakatu zen arte"*
Susana, jokalari ohia



GEHIAGO JAKIN NAHI AL DUZU?